

PRODUKTU ELEKTRONIKOEN EROSKETA PUBLIKO ETIKOA

Beharrezkoa den eztabaida
izateko ideiak



2015eko urrian



ALBOAN

Jesuitek sortu eta bultzatutako Fundazioa


www.alboan.org

 **Deusto**Campus



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Lankidetzeta Bulegoa
Negociado de Cooperación



Produktu Elektronikoen Erosketa Publiko Etikoa

1. SARRERA

2. GEURE ERANTZUKIZUN ETIKOA "GATAZKA ITURRI DIREN MINERALEI" DAGOKIENEZ

2.1. «Gatazka-iturri diren mineralen» merkataritza arautzea: erronkak eta aukerak

3. TOKIKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOETATIK JARDUTEKO GUNEAK

BIDEZKO MERKATARITZAREN ALDEKO HIRIAK

CONFLICT-FREE CITIES

ELECTRONIC WATCH

BUY IT FAIR

ELGAren BEHAR BESTEKO ARDURARI BURUZKO GIDALIBURUA

Padre Lojendio, 2 - 2. 48008 Bilbo. Tel. +34 944 151 135
Avenida Barañain, 2. 31011 Iruñea. Tel. +34 948 231 302
Andía, 3. 20004 Donostia. Tel. +34 943 275 173
Monseñor Estenaga, 1. 01002 Gasteiz. Tel. +34 945 202 676
alboan@alboan.org | www.alboan.org

1. SARRERA

Duela gutxienez hamarkada batetik hona, kontratazio publikoari buruz asko hitz egin eta eztabaidatu da bai administrazio publikoetan, bai gizarte zibileko erakundeetan. Badugu nahikoa arrazoi gai horri erreparatzeko, zeren, azken batean, **gizarte osoaren ekarpenekin eratzen baita altxor publikoaren aurrekontua** zuzeneko eta zeharkako zergen bitartez, eta, urtero, **administrazio publikoek** aurrekontu horretatik diru-kopuru garrantzitsua erabiltzen dute askotariko gastuak ordaintzeko (instalazioen mantentze-lanak, obren kontratazioa, ekitaldien antolaketa, uniformeak eta abar). Administrazio publikoek baliabide komunak kudeatzen dituzte; hain zuzen ere, herritarrek oinarrizko zerbitzu eta ondasunak eskuratzeko aukeretan berdintasuna izan dezaten ahalbidetzeko beharrezkoak diren baliabide komunak. Helburu hori lortzeko, erabakiak ezin dituzte hartu eraginkortasun ekonomikoaren irizpideetan soilik oinarrituta. Funtzio publikoa dela-eta, herritarrentzat **eredugarri izan** behar dute, eta horregatik, gero eta jende gehiagok eskatzen die kontratazio publikoko programetan ingurumenarekin, gizartearekin eta etikarekin lotutako irizpideak ere aintzat hartzea.

Hartara, administrazio publiko batek edozein zerbitzu kontratatatu behar duenean, enpresa hornitzailea hautatzeko garaian ez dio soilik prezioari erreparatuko. Azken urteotan, Europar hainbat arau¹ eman dira eta gizarte zibileko erakundeek hainbat gidaliburu² egin dituzte «beste zerbaite» hori zehaztu nahian, goian aipatu ditugun hiru dimentsio horiei dagokienez: ingurumena babestea, gizarte-justizia eta erantzukizun etikoa³.

Natura zaintzeari buruzko eztabaidaren ondorioz, **Erosketa Berdea** sortu da; hondakinen produkzioa eta kontsumoa murriztea eta birziklatutako edo modu jasangarrian kudeatutako baliabide berriztagarrietatik sortutako produktuekin egindako kontsumo-aukerak bilatzea xede duten politikak biltzen ditu ekimen horrek. Bestalde, **Erosketa Sozialari** dagokionez, bazterkeria-arriskuan daudenei gizarteratzen laguntzen dieten enpresen kontratazioa sustatzeko neurriekin lotzen da, generoen arteko aukera-berdintasuna, kalitatezko enplegua eta ekonomia solidarioa sustatzeko neurriekin. Hirugarren alderdia **Erosketa Etikoa** da; hornidura globaleko kateez arduratzen da, eta garapen-bidean dauden herrialdeetako produktuen erosketen kasuan, produktuak lan-baldintza duinetan produzitu eta merkaturatzen direla ziurtatzea (Bidezko Merkataritzako zigiluen bitartez, esaterako) du xede.

Azken lan-ildo horren premisei jarraiki, dokumentu honetan hainbat esperientzia aitzindariaren berri emango dugu eta, aldi berean, erosketa publiko etikoaren gaineko eztabaidan tresna elektronikoaren kontsumoaren gaia sartzeko hainbat ideia proposatuko ditugu. Jakin badakigu ekimena berritzailea dela eta bide luzea dugula oraindik egiteko.

Baina EAEko eta Nafarroako jesuiten ALBOAN gobernu kanpoko erakundean uste dugu gai hori aztertzen hasteko garaia iritsi dela. Batik bat, geure eguneroko bizimoduan erabiltzen ditugun tresna elektroniko gehienak (mugikorrak, ordenagailuak, tabletak eta abar) egiteko mineralak beharrezkoak direlako; eta lehengai horiek politikoki egonkorak ez diren lurraldeetan erauzten dira. Hortaz, lege kanpoko merkaturatzeen bitartez gatazka armatuak eta giza eskubideen urraketa mota asko finantzatzeko aukera egon daiteke.



¹ Europako araudi berrienak egituratzen dituzten ildo estrategikoen laburpen bat kontsulta daiteke helbide honetan:

<http://blogplyca.nexus-it.es/wp-content/uploads/NUEVAS-DIRECTIVAS-CONTRATACI%C3%93N-2014-CLAVES-PRIMERA-LECTURA.pdf>

² Ikus Esperientziak eta jardunbide egokiak eranskinean bildutako ekimenak.

³ Hiru dimentsio horiek Ekonomia Alternatibo eta Solidarioko Ekimenaren (IDEAS) webgunean jasota daude:

<http://www.comprapublicaetica.org/index.php/la-compra-publica-etica/marco-conceptual>

2. GEURE ERANTZUKIZUN ETIKOA “GATAZKA ITURRI DIREN MINERALEI” DAGOKIENEZ

Mineralak erauztea eta merkaturatzea gatazka armatuen finantzaketarekin lotuta dagoela XX. mendearen amaieran eta XXI. mendearen hasieran jakin genuen. Harrezkero, nazioarteko erakunde⁴ eta GKE independente⁵ askok frogatu dute lotura dramatiko hori izan badela, dokumentu bidez. Izan ere, azken 60 urteetako estatu barruko gatazka guztien % 40 baliabide naturalekin lotuta egon dela kalkulatzen da, eta baliabide horien presentziak bikoiztu egiten duela gatazkak berpizteko aukera⁶.

Gaiari buruzko literaturan, aztergai izan dituzten hainbat kasu aipatzen dira askotan, hala nola, Afganistan, Kolonbia, Afrika Erdiko Errepublika edo Kongoko Errepublika Demokratikoa. Afrikako Laku Handien eremua da, ziurrenik, aberastasun naturalek eragin ditzaketen pizgarri gaiztoen adierazgarri argienetako bat, gatazka sozialak betikotzearekin lotuta. Mineraletan oso aberats diren herrialdeak –Kongoko Errepublika Demokratikoa, esaterako– azken postuetan daude giza garapenari dagokionez. Urrutira jo gabe, Afrika erdialdeko herrialde hori «**gatazka-iturri diren mineralen**» mota berezi baten esportatzaile garrantzitsuenetako bat da: **3T+G** (tantalioa –koltanetik erauzten da–, tungstenoa –wolfram ere esaten zaio–, eztainua eta urrea); hain zuzen ere, elektronikako eta aeronautikako industriek produktuak egin ahal izateko gehien eskatzen dituzten mineralak dira. Baina lehengaietan aberats diren beste herrialde askotan gertatzen denez, jendearen ongizaterako mesedegarri izan beharrean, **ezegonkortasunaren eragile iraunkor** izan da. Kongoko Errepublika Demokratikoaren kasuan, baliabide mineralen kontrolak herrialdearen azkenaldiko historia odoleztatu du. Lehenik, Kongoko bigarren gerra zibilean –1998tik 2003ra bitarte, «Koltanaren Gerra»– lurralde-lehia sustatu zelako; eta harrezkero, herrialdeko ipar-ekialdeko eremuetan oraindik ere aktibo dauden talde armatuen diru-iturri nagusi bihurtu delako (koltanaren meategi garrantzitsuak baitaude bertan).

Gatazka horiek ondorio tamalgarriak izaten dituzte tokiko herritarrengan. Kongoko Errepublika Demokratikoan soilik, 1998. urteaz geroztik bost milioi pertsona baino gehiago hil dira, soilik 2013. urtean milioi bat pertsona desplazatu ziren eta emakumeen aurkako indarkeria sistematikoa (bortxaketa masiboak, lan-esplotazioa, hezkuntzatik kanpo uztea eta abar) errepresio-modutzat sendotzen ari da, gero eta gehiago.

Gatazkan dauden eremuetatik erauzten diren mineralak dituzten gailu elektronikoak kontsumitzen ditugun aldetik, **gatazka horiek pairatzen dituzten herritarrekiko erantzukizun etikoa dugu eta ezin dugu erantzukizun hori saihestu**. Fisikoki guregandik oso urrun dauden arren –Kongoko Errepublika Demokratikoa, adibidez–, errealtate horiekin dugun lotura hobeto ulertuko dugu baldin eta gure eguneroko bizimoduan erabiltzen ditugun gailu teknologikoen fabrikazio- eta merkaturatze-prozesua kontuan izaten badugu. Gertuagoko adibide bat emango dugu: telefono mugikor bakoitza produzitzeko tantalioa behar izaten da, baterietan elektrizitatea metatu ahal izateko; wolframa, dar-dar egiteko; eztainua, zirkuituak soldatzeko, eta urrea kableak estaltzeko. Lau mineral horiek gabe telefono mugikorrek ezin dute funtzionatu, gaur egungo geure ikuspegitik begiratuta.

4 Ikus United Nations Environment Programme-UNEP (2009), *From Conflict to Peacebuilding The Role of Natural Resources and the Environment*, UNEP: Nairobi.

5 Horrelako egoerak ikertu eta salatzen espezializatutako GKEen lana aipa daiteke, hala nola, Global Witness, Amnesty International, SOMO, Powershift eta/edo beste hainbat erakundek esku-hartzeak egin izan dituzte lekuan bertan, gatazkan dauden tokietan (Belgikako Justizia eta Bakea Batzordea, kasu).

6 UNEP (2009).

Eta geure erantzukizuna are handiagoa da zeren, alde batetik, horrelako gailuen **eskaria** (eta horren ondorioz, mineralena ere) **areagotu egingo baita** datozen hamarkadetan eta, bestetik, indarkeriak astindutako eskualdeetan bizi diren herritar asko ez daudelako prest diru-iturri horri uko egiteko. Munduko Bankuak 2008. urtean egindako txosten baten arabera, gaur egun, Kongoko Errepublika Demokratikoan 2 milioi lagun inguru ari da arautu gabeko meategi horietan lanean; **«artisau-meatzaritza»** esaten zaio horri. Eta zifra hori aintzat hartuta, zuzenean edo zeharka negozio horri esker bizi direnak gutxienez **10 milioi pertsona** (senitartekoak, emazteak, haurrak eta abar) direla esan dezakegu. Bestela esateko, biztanleriaren % 16. Nahiz eta «artisau-meatzaritza» inolako babesik gabe egiten den, bestelako aukerarik eta baliabiderik ez dutelako; eta kasurik okerreanean, erdiesklabotasun-egoeran.

Pertsona horiek bizi duten errealitate bortitza mineralen merkataritzaren alderdi ilunenarekin lotuta dago, eta mineralen merkataritza, aldi berean, geure kontsumo-ohiturekin; bi lotura horiek agerian geratu direlarik, harreman-egitura horren azpian ezkutatzen diren bidegabekeriak desagerrarazteko egin ditzakegun ekintzei buruzko **eztabaida publikoa** sortu da. ALBOAN gure erakundean, jakin badakigu Kongoko Errepublika Demokratikoaren ekialdeko eremuan arazo horiek oso-oso larriak direla, Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzuarekin eta ekintza humanitarioan jarduten duten tokiko hainbat erakunderekin batera lan egiten baitugu. Horregatik, mineral horien merkataritza arautzeko abiarazi diren lege-ekimen guztien jarraipena egin dugu. Ekimen hau gure **Gatazkarik Gabeko Teknologia** kanpainaren





barruan txertatzen da; kanpaina horrek hiru helburu ditu: 1) «gatazka-iturri diren mineralen» problematika EAEko herritarrei ezagutaraztea; 2) gailu elektronikoen kontsumo arduratsua (eta birziklatzea) sustatzea; 3) eta gatazkak dituzten herrialdeetan erauzten diren mineralak hornitzen diren enpresen hornidura arduratsua bermatuko duten bidezko legeak onar daitezten lortzea. Europar Batasunak iaz abiarazi zuen legegintza-prozesuak azken helburu hori betetzeko aukera emango duen egoera berria eskaintzen du. Hurrengo epigrafean, prozesu horrek eskaintzen dituen erronkak eta aukerak azalduko ditugu.

2.1. «Gatazka-iturri diren mineralen» merkataritza arautzea: erronkak eta aukerak

«Gatazka-iturri diren mineralen» –teknikoki, 3T+G esaten zaie– nazioarteko merkataritza arautzeari buruzko eztabaida globala 2009. urtean hasi zen. Urte hartan, ELGAk Gidaliburu bat proposatu zuen industriak lau mineral horietaz hornitzen dituen katean **«behar besteko ardura»** instituzionalizatzeko. Katea osatzen duten eragile guzti-guztiei egiten zaizkie gomendioak: “*upstream* konpainiei” (mineralak erauzi, findu eta lehen mailako lanketa egiten dute) eta “*downstream* konpainiei” (gailu elektronikoa fabrikatu, muntatu eta merkaturatzen dituzte). Ilde berean, **ELGA-Gidaliburuan 5 urrats proposatu dira** (ikus esperientziei buruzko eranskina, dokumentu honetan) enpresen kontu-emate prozesua hobetzeko eta euren gizarte-erantzukizuna indartzeko. Neurri horiek aplikatuta, enpresak hornitzaileekin lotzen dituzten harremanak ikusgai jartzea lortu nahi da. Hartara, hornidura-kateak nola funtzionatzen duen hobeto jakingo genuke, eta horren ondorioz, errazagoa izango litzateke merkataritza-jardueraren bitartez gatazka armatuak, ustelkeria edo giza eskubideen urraketak finantza daitezen saihestea. Hori dela-eta, ELGA-Gidaliburua ezinbesteko erreferentzia bihurtu da gaiarekin lotutako legeei dagokienez: bai AEBetan –2010. urtean lege bat (Dodd-Frank legea, 1502. atalean arazo hori aipatzen duela) onartu

zen-, bai European, oraindik gaiari buruzko eztabaidan ari diren arren. Dena den, bi legeen edukia eta norainokoa oso desberdinak dira.

Europako Batzordeak 2014ko martxoan egindako **hasierako proposamenari** dagokionez, eztabaida eragin du. ALBOAN elkarteak, baita «gatazka-iturri diren mineralak» buruzko erregulazioan eragiteko gurekin batera lan egiten duten gainerako elkarteetan ere, iruditzen zaigu erregulazio horren **alde on nagusia** zera dela, **norainoko globalarekin** proposatu izana: ez da Laku Handien eremura mugatzen, AEBetako legearen kasuan bezala, baizik eta «gatazka-eremu» oro hartuko luke eraginpean. **Ahulezia** handiena, berriz, **borondatezko ziurtapen-eredu** baten alde egiten duela, eta 3T+G mineralak zuzenean inportatzen dituzten Europako enpresak baino ez dituela hartzen eraginpean (ez dira sartzen mineral horiekin partzialki edo osorik manufakturatutako produktuez hornitzen diren enpresak). Zorionez, maiatzaren 20ko bozketan, **Parlamentuak planteamendu hori zuzendu egin zuen** eta gizarte zibilaren eskakizunekin bat egin zuen. Alegia, araua derrigorrezkoa izatearen alde egin zuen, eta hornidura-kate osoa geratu zen arauaren eraginpean, ELGA-Gidaliburuan gomendatutakoari jarraiki eta Dodd-Frank legean jasota geratu zenez.

Horrela, bada, negozioazioaren azken txanpan sartu gara; gobernu nazionalak konbentzitu egin beharko ditugu, Europako Kontseiluaren bitartez, Parlamentuak Batzordearen hasierako proposamenari egindako zuzenketak berresteko. Gaiaren jarraipena egiten ari garen Europako GKEen koalizioaren ustez, **Europako etorkizuneko erregelamendua derrigorrezkoa izatea eta hornidura-katea osatzen duten enpresa guztiguztietan aplikatu behar izatea oso garrantzitsua da.**

Batik bat, eskarmentuak erakutsi digulako arauak betetzea aukeran uzten baldin bada oso enpresa gutxi hartzen duela arau horiek ezartzeko erabakia. Gaur egun, guk erabiltzen ditugun gailu elektronikoen gehienak egiteko behar diren mineralak nondik datozen jakitea



zaila izaten da. Eta ez da gai hutsala; izan ere, iaz, 3T+G mineralen merkataritzak 123 bilioi euroko guztizko zenbatekoa eragin zuen, eta horren % 16 Europatik egindako inportazioei dagokie. Baina horretaz gain, mineral horiek beharrezkoak dituzten gailu elektronikoen bigarren inportatzaile garrantzitsuena Europa da.

Estatu Kideei zera eskatzen diegu, derrigorrezko legearen alde egin dezatela, ELGAk proposatzen duenaren antzeko behar besteko arduraren sistema batean oinarrituta; eta horretarako, honako gomendio hauek eman dizkiegu:

1. **Araudi honen eraginpeko mineralak Europako merkatuan lehen aldiz** —dela lehengai gisa, dela bukatutako produktuetan txertatuta— **sartzen dituzten konpainia guztiei hornidura arduratsua** eskatuko dien erregulazioaren **alde egitea**.
2. Behar besteko arduraren izaera **malgua eta mailakatua** adierazten duen erregulazioaren **alde egitea**. Arauak “zentzuzko” ahaleginetan eta etengabeko hobekuntzan oinarritu behar dira, eta konpainia bakoitzaren banakako egoeretara egokitu behar dira; esate baterako, hornidura-katean non kokatzen diren, zer nolako tamaina duten eta hornitzaileen gain zenbateko eragina duten.
3. Parlamentuaren proposamenean **“upstream” xedapenak indartzea**, eta Batzordeari, ELGAri edo lege-ahalmena duten bestelako kidegoei tresna eta gidaliburuak egin ditzaten eskatzea, “upstream” konpainiei beren betebeharrak betetzen laguntzeko.
4. **Lege-testuan “downstream” gomendioak** —ELGAren Behar besteko Ardurari buruzko Gidaliburuan jasotakoak— **biltzea**, eta Batzordeari, ELGAri edo legegintzako bestelako kidegoei tresna eta gidaliburuak egin ditzaten eskatzea, “downstream” konpainiei beren betebeharrak betetzen laguntzeko.
5. **Xedapenen aplikazioa eta ikuskapena areagotzea**, erregulazioaren eraginpeko konpainia guzti-guztiak barnean hartu arte, baita legearen eraginpeko mineralak barne-merkaturan lehen aldiz sartzen dituzten “downstream” konpainiak ere, eta Batzordeari jarraibideak eman ditzan eskatzea, ikuspegi harmonizatu eta egingarri batetik begiratuta egingo dela bermatzeko.
6. **Laguntzeko neurriak indartzea**, legearen ezarpen-prozesuan gerta litezkeen erronkei aurre egin ahal izateko; hala nola, artisau-meatzaritzaren eta meatzaritza informalaren sektoreetan izaten dituzten erronkei.
7. Erregulazioaren eraginpean egon daitezkeen beste mineral eta baliabide natural batzuk gerora txertatzeko aukera emango duen **mekanismo bat izatea**, gaiari buruzko AEBetako legean xedatutakoari jarraiki.

ALBOAN elkartean, sinadurak biltzeko kanpainari ekin diogu berriro, neurri horien aldekoen babesa jasotzeko⁷. Hala ere, gure ustez, guk ezin dugu ezer egin gabe zain egon, etorkizuneko legea indarrean hasi bitartean. Hainbat eremutatik ekin dezakegu. Banakako ekintzei dagokienez, «Kongoren aldeko Mugikorrak»⁸ ekimena abiarazi dugu; mugikorrek berrerabili eta birziklatzearen aldeko kanpaina honetan lortutakoa nazioarteko lankidetzaproiektuetan eta laguntza humanitarioan inbertitzen da, Kongoko Errepublika Demokratikoan.

⁷ <http://www.tecnologialibredeconflicto.org/firma/>

⁸ <http://www.alboan.org/portal/seccion.asp?N=1152>

Ekintza kolektiboei dagokienez, produktu elektronikoen erosketa publiko etikoarekin lotutako konpromisoak hartzeko aukera aztertzen hasi gara. Urriaren 7an, gai horri buruzko mintegi bat antolatu genuen Donostiako Deustuko Unibertsitatearen campusean. Topaketaren helburua eztabaida eragitea zen, gailu elektronikoen kontsumitzaile garen aldetik, geure erantzukizunari buruzko eztabaida eragitea, betiere “gatazka-iturri diren mineralen” problematikarekin lotuta. Kongoko Ferdinand Muhigirwa jesuitak parte hartu zuen, eta azaldu zuenaren arabera, Kongoko Errepublika Demokratikoan mineralak erauzten eta merkaturatzen dituztenek herrialdearen ekialdeko gatazka armatuak finantzatzen dituzte. Bestalde, Afrika Erdialdean lan egiten duten Europako GKEen Sareko (EurAc) kide den Frédéric Triest jaunak mineralen merkataritzari buruzko Europako legegintza-prozesuak eskaintzen dituen aukerak aztertu zituen, lotura hori desagerrarazi eta enpresen hornidura arduratsua bermatzeari dagokienez. Bukatzeko, topaketaren amaieran, mahai-inguru bat antolatu genuen gizarte-erakundeek eta administrazio publikoek erosketa etikoarekin lotutako esperientzien berri emateko. Hurrengo epigrafean, atariko ondorio gisa, parte-hartzaileek «jardunbide egokien» adibidetzat nabarmendu zituzten esperientzia, jarraibide edo ekimenak biltzen dituen eranskina aurkeztuko dugu, erreferentzia izan baitaitezke tokiko administrazio publikoek gailu elektronikoen erosketa etikoarekin konpromisoa hartzeko garaian.



3. TOKIKO ADMINISTRAZIO PUBLIKOETATIK JARDUTEKO GUNEAK

BIDEZKO MERKATARITZAREN ALDEKO HIRIAK

<http://www.ciudadjusta.org/>

<http://www.comrapublicaetica.org/>

Bidezko Merkataritzaren aldeko Hiria zera da, administrazioen, denden, enpresen eta elkarte-sarearen bitartez Bidezko Merkataritzaren produktuak herritarrengana hurbiltzen dituen herri-eredua. 2001. urtean, Ingalaterrako Gartang hiria Munduko Bidezko Merkataritzaren aldeko lehen Hiri izendatu zuten. Gaur egun, mundu osoan 1.000 herrik baino gehiagok dute Bidezko Merkataritzaren aldeko Hiriaren titulua. Espainian, Ideas (Iniciativas de Economía Alternativa y Solidaria)- Bidezko Merkataritzako Erakundeak koordinatzen du Bidezko Merkataritzaren aldeko Hirien programa, eta bost irizpide finkatu ditu titulu hori lortu ahal izateko:

1. Bidezko Merkataritzako produktuak kontsumitzearen eta Bidezko Merkataritzaren aldeko ebazpena onartzea Udalean.
2. Bidezko Merkataritzako produktuak eskaintzea herriko taberna, jatetxe eta dendetan.
3. Sektore pribatuak eta erakundeek konpromisoa hartzea eta barne-kontsumoetan horrelako produktuak txertatzea.
4. Herritarrekiko komunikazioa eta sentsibilizazioa.
5. Programa koordinatuko duen lantaldea sortzea.



CONFLICT-FREE CITIES

<http://www.raisehopeforcongo.org/content/conflict-free-cities>

Enough (<http://www.enoughproject.org/>) proiektuaren kanpaina honen bitartez, herritarrei jakinarazten zaie zer urrats egin behar dituzten baldin eta Udalarri zera eskatu nahi badiote, Kongoko Errepublika Demokratikoan bakea lortzearen, batik bat, produktu elektronikoaren erosketa publikoaren bitartez, ekintza positiboak txertatzeko konpromisoa hartzen duela dioen ebazpena sinatzeko.

Estatu Batuetan, Pittsburgh, PA, izan zen "conflict-free cities" kanpainarekin bategin zuen lehen hiria; hona hemen Udalak sinatutako ebazpena: <https://pittsburgh.legistar.com/LegislationDetail.aspx?ID=873982&GUID=53DB676C-7643-4948-A56D-6731D4925634>



Por la mejora de las condiciones laborales
en la industria electrónica global

ELECTRONIC WATCH

<http://www.electronicwatch.org>

Electronic Watch partzuergoan Europako 7 GKE biltzen dira (SETEM, Fundacja Centrum CSR.PL, Danwatch, People & Planet, SOMO, Südwind Agentur eta WEED), eta elektronikaren industrian dauden lan-baldintzak gainbegiratzearren, sektore publikoko erosleak eta lan-eskubideekin lotutako gobernu kanpoko erakundeak bil-tzea du xede.



BUY IT FAIR. Toca las teclas justas.

Ordenagailuen erosketa publiko jasangarria egiteko gidaliburua

Setem-ek argitaratu zuen Katalunian, 2010. urtean.

http://www.setem.org/media/pdfs/Buy_IT_Fair_-_castellano.pdf

Lehiaketa publiko jasangarriak egiten laguntzeko diseinatu zen gidaliburua. Batik bat, ordenagailuen ekoizpen-kateetan izaten diren lan-baldintzei erreparatzeko. Europar Batasuneko 2004. urteko jarraibideak izan ziren lege-erreferentzia gidaliburua egiteko garaian; izan ere, erosketa publikoetan jasangarritasun-irizpideak txertatzeko aukera ematen baitu.

2014. urtean **Kontratazio Publikoari buruzko Europako Zuzentarau** berria onartu zen, eta gizarte-arloko, ingurumenarekin lotutako eta Bidezko Merkataritzako irizpideak txertatzeko aukera ere biltzen du. Halaber, lizitazioaren iragarkian finkatutako jasangarritasun-betekizunak betetzen direla frogatzeko ziurtapen-sistemak baliatzeko aukera esanbidez baimentzen du.

<http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/PDF/?uri=CELEX:32014L0024&from=ES>



ELGaren BEHAR BESTEKO ARDURARI BURUZKO GIDALIBURUA

gatazka-eremuetako edo arrisku handiko eremuetako mineralen hornidura-kate arduratsuentzat

<http://www.oecd.org/corporate/mne/mining.htm>

ELGaren behar besteko ardurari buruzko gidaliburua borondatezkoa da; beraz, enpresak ez daude betetzera behartuta. Kontratazio publikoak finkatzeko garaian, Administrazio Publikoek gutxienez zera egin dezakete, enpresei gidaliburua ezagutzen eta/edo betetzen ote duten galdetzea, sentsibilizazio-ekintza moduan eta gaiarekiko ardura adieraztearren. ELGaren gidaliburuan bost urrats hauek ezarri dira:

1. Enpresa-kudeaketako sistema sendoak ezartzea. Adibidez, gatazka-iturri diren mineralen enpresa-politika finkatzea, politika hori hornitzaileen kontratuetan txertatzea, behar besteko arduraren prozesua gainbegiratu duen arduradun bat izendatzea, eta enpresari hornidura-katearen gaineko informazioa lortzen lagunduko dion prozesua ezartzea.

2. Hornidura-kateko arriskuak identifikatu eta ebaluatzea – 1. urratseko politikari esker jasotako informazioa aztertu. “Upstream” enpresa baten kasuan –mineralen hornitzaile edo findegi/galdategi bat–, horrek zera esan nahi du, informazioa meatzeetan eta garraio-ibilbideetan egiaztatu egin behar dela, arriskurik ba ote dagoen ikusteko (adib. gatazka finantzatzeko arriskua, edo hurrek lan egiten ote duten). “Downstream” enpresa baten kasuan, horrek zera esan nahi du, hornidura-katean findegi/galdategiak identifikatzeko urratsak egin behar direla, eta konpainiak galdategi ez-arduratsu bati erosteko arriskurik ba ote dagoen zehaztu.

3. Identifikatutako arriskuei aurre egiteko estrategia diseinatu eta ezartzea – adibidez, arriskuak kudeatzeko plana egin eta betetzea, eta arriskuak kudea ditzaketen hornitzaileengan eragin-ahalmen biderkatzailea izatea.

4. Hirugarrenen kargura auditoria independente bat egitea hornidura-katearen puntu jakin batzuetan hornidura-katean behar besteko ardura egiaztatzeko. “Downstream” enpresek zera egiaztatu behar dute, auditatutako galdategi/findegiren bat eskuragarri ba ote dagoen, 2. urratsaren barruan.

5. 1. urratsetik 4. urratsera bitarte egindako ekintza ororen berri ematea – arriskuak identifikatu, balioetsi eta minimizatzeko egindako urratsak barnean hartuta. Galdategi/findegi baten kasuan, horrek zera esan nahi du, auditoretza-txostena argitaratzea, eta arrisku bat –hala nola, meatze partikular batek gatazka finantzatzeko duela jakitea– nola kudeatu duen frogatzea. “Downstream” enpresa baten kasuan, horrek zera esan nahi du, adibidez, bere findegietako bat arduragabe denean egoera hori kudeatzeko zer urrats egin dituen jakinaraztea.

